

Goienkaria

2009ko abenduaren 23a > Eguaztena > X. urtea > 403. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM

GABONETAN ^{NON-ZER} > 09-14



Puntako bertsolariak, Oñatiko kiroldegian urtarrilaren 5ean.

ARRASATE

Udalerría eta Garagartza lotuko dituen bidegorria abian da > 06

BERGARA

Asteon irekiko dute Bideberriko bi noranzkodun errepide berria > 06

ARETXABALETA

E-planari esker Lausittako etxeen saneamendua egingo dute > 06

TELEBISTA

Goiena Telebistak 'Berriak' saioa eskainiko du datorren astean > 15



FAMILIAN Santamas egunean ohikoa da herritarrak baserritar jantzita ikustea: besteak beste, guraso eta seme-alaba asko.

XABIER URTZELAI

Urtekaria GOIENKARIAREN barruan

Eskuartean duzuen alearekin batera urteari errepasoa egiten dion gehigarria duzue.



JENDARTEA > SANTAMASAK 09

Epelaren gozoan pasa zuten Santamas feria

GIRO ONA Jende ugari hurbildu zen atzo, Arrasatera, Santamas azokara. Ekitaldi guztiak primeran atera ziren eta eguraldia ere portatu zen

BAZKARIA Azoka ostean Musakolan egindako herri bazkarian 1.000 lagun inguru batu ziren; Santamas Komisiñukoak oso pozik daude > 02-05



Urtarrilera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu urtarrilaren 4ra bitartean eta GOIENKARIAREN hurrengo zenbakia 8an argitaratuko dugu. Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

JAIK > SANTAMASAK

Giro epela eta jendetsua nagusitu zen atzoko azokan

TXERRI-DANTZA Eguerdi partean zaila izan zen gertutik ikustea txerria, artisauen jardura edo Txerri-dantza; azken horrek plaza leporaino bete zuen

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Egun luzea izan zen atzokoa Santamas Komisiñuko kideendako. Eguna egusentian hasi zen askorendako, 07:00etan hitzordua eginazuten eta baserriarrek, ganadu, hegazti, artisau eta barazki eta fruten erakusketak gertatzeko.

Fin ibili ziren lanean, 10:00etarako dena prest zegoen-eta. Seber Altube plazako postuetan, esaterako, inguruko baserrietako sasoiko barazki eta fruta ederrenak zeuden erakusgai, hala nola, azkar, porruak, azalorea, intxaurrak, baserriko ogia, Tolosako eta Gernikako babak eta hamaika sagar klase. Ez hori bakarrik: txerrikiak ere edonon ikusteko eta dastatzeko aukera egon zen.

TALOA 5 EUROTAN

Santo Tomasetako feria, txorizo eta ogia: halaxe dio atsoitzak eta horixe gertatu zen. Txorizo eta talo usainak erdiko kale gutziak hartu zituen. Asko izan ziren talo goxoa jatera animatu zirenak, 5 bat euroren truke.

Hasiera lasaia izan bazen, eguerdirako zaila zen hainbat

tokitatik mugitzea. Erakusketetan ibiltzea ez zen samurra; are gehiago, erakusgai zegoena ikustea. Jokin Zaitegi plazako artisau langintzen jardura edo Larrea herritik ekarritako *Krixis Bi* ize-narekin bataiatutako txerri liraina gertutik ikustea, esaterako, ezinezkoa zen; baita Herriko Plazan, Lore Gazteak taldearen dantzaldia ikustea edo Txerri-dantza herrikoian parte-hartzea. Azken horrek plaza leporaino bete zuen.

Hori amaitzean, batzuk Musakolarantz abiatu ziren, kalejiran, mila lagunendako bazkaria zain zegoen-eta han. Beste batzuek, berriz, nahiago izan zuten lagunekin batera elkartetan baba-jana egitea edo besterik gabe, goizeko joan-etorrien ostean, etxera lasai erretiratzea.

JENDE ASKO

Santamas Komisiñue pozik zegoen bazkaldu ordura arteko giroarekin. Taldeko kide German Gallastegik hauxe dio: "Balorazio ona egiten dugu; orain arteko ekimenak ondo irten dira, jende asko ibili da". Eguraldiarekin ere oso pozik zeudela gaineratu zuen:

HEGAZTIAK Hegaztien erakusketako formatu berriak harrera ona izan zuen; kioletan izan beharrean barandekin egindako esparruan izan zituzten hegaztiak

"Denboralea zela-eta, azken egunotan hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira; esaterako, zapatuan egitekoak ziren Garesko eta Artaxoako laiarrien erakusaldia. Aurreko egunekin alderatuta, epel egon da goiza, oso ona".

Ondo baino hobeto portatu zen eguraldia. Izan ere, eguerdiko ekimenak amaitu bezain pronto, ekaitza egon zen. Arratsaldean, baina, aterkiaren beharrik ez zuten izan arrasatearrek.

KAIOLETATIK BARANDETARA

Bestalde, berrikuntzei dagokienez, hegaztien erakusketako formatu berriak harrera ona izan zuela esan zuen Gallastegik: "Orain arte hegazti guztiak kioletan zeuden sartuta. Batzuek eskatu ziguten barandak jartzeko eta, egia esan, ikusgarriagoa da. Zabalagoa izateaz gain, politagoa ere bada eta, hortaz, datoren urterako ere kontuan izango dugu". Bestalde, aurtengo edizioan bestelako aparteko berrikuntzarik ez dela egon aipatu zuen; Pirenaika arrazako behien orde, txarolesak ikusteko aukera egon zela. Besterik ez.

Eguedian Portaloi parera eraman zuten *Krixis Bi*, arrasatear askoren begiradapean. Aurten ere,

Gaztetxo bat txerri dantza adi-adi jarraitzen.



x.u. Ferrerías kalea ondo girotuta



Herri bazkarian, Musakolako kantxa bete-bete egin zen.

IRATI AGIRREAZALDEGI

INKESTA



Maria Luisa Gonzalez Audikana
Gaztagilea (Aramaio)

"Urtero legez, etxeko gaztarik onenekin etorri naiz. Horretarako esne ona behar da eta gero mimo handiekin lan egin. Santamasetan ez da gehiegi saltzen; jendea begiratzera eta probatzera etortzen da, baina erostera, gutxi".



Jone Arregi eta Maite Gartzia
Txakolingileak (Arrasate)

"Arrasate eta ingurukoek ezagutzen dute Egi-Haundi baserrian egiten dugun Kataide txakolina eta beti etortzen dira erostera. Txakolina gustura edaten da gurean, eta bai tabernetarako, bai etxerako, ondo saltzen dugu".



Iker Isasti
Gozogilea (Arrasate)

"Gorrotxategiko turroi mota asko eta etxean egindako pastelak ekarri ditugu, urtero legez. Jendeak turroia izaten du gustuko sasoi honetan, eta orain mandarinarekin egindakoa da gehien eskatzen dutena".



Resu Aretxaga
Eroslea (Aretxabaleta)

"Urtero etortzen naiz feriara, eta beti produktu berberen bila: pate frantsesa eta sagarrak. Halako sagar ederrik ez dago beste inon, baina iaz baino euro bat garestiago dago aurten kiloa, produktu ona ordaindu egin behar da-eta".



Rakel Perez Arenatza
Fruta eta barazkigilea (Arrasate)

"Lehenengoz nago Santamasetako azokan, eta gustura. Askasibar baserriatik nator eta denetik ekarri dut apur bat: barazkiak, ogia, kontserbak, odolosteak... Horren atzean lan handia dago, eta erakusteko argazkiak jarri ditut".



txerria izan da Santamasetako protagonista nagusia.



XABIER URTZELAI

Perurena aita-semeak, erakustaldia egiten.

x.u.



zegoen 13:00ak inguruan.

x.u.



Umea taloa jaten, Laubiden.

x.u.



Herritarrek aprobetxatu zuten goiza, besteak beste, azokan barazkiak erosteko.

x.u.



J.M. Mondragon eta M. Altzelai
Herritarak (Arrasate)

"Etxetik irten orduko talo bila etorri gara eta benetan ederra dago Bizkaitik etorritako hauek egindakoa. Behin jandakoan bueltatxo bat emango dugu azoka ikusteko. Benetan giro polita izaten da Santamasetan".



Juan Maiora
Ikuslea (Bergara)

"Bergarako Iñigo Almortza lagunak ekarritako zezentxoei begira nago. Barruan lotuta beharrian hobeto daude kalean; izan ere, halaxe ibiltzen dituzte horiek jaietan. Txikiak direla uste arren, indar handia daukate gero".

ABENDUAK 28, 29, 30

10:30 - 13:00
15:00 - 19:00

umeen gobotetoko parkeak

DOAN

rokdromoa
puzarriak
karaokea
minigolfa
futbolinak
kontsolen gunea
tailerrak



Egurrezko sukaldeko tresnen egilea, Jokin Zaitegi plazan.

XABIER URTZELAI

ARTISAUAK > SALMENTA

Ikusminarekin hurbildu da jendea artisau azokara

Orokorrean pozik azaldu dira artisauak, motel hasi arren poliki-poliki saldu egin dutelako

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Eguraldiak lagun egin die Jokin Zaitegi plazan elkartutako 40 bat artisauei eta eskertu dute iazko hotzik ez izatea. Herritarrei kosta egin zaie eskulagintzen feriarra hurbiltzea baina eguerdirako beteta zegoen.

Bitxiak, larruarekin egindako lanak, pilotak... eta beste asko aurkitu dituzte bisitariek. Horien artean bitxiak Altsasutik etorritako uztarrigilea, Eibarko upelgilea eta Angeluko xaregilea. Posturik kuriosoa, baina, etxeokoa izan da, Arrasateko emakumezkoen

arte taldearena, hain zuzen. Birziklatutako materialekin egindako lanak saldu dituzte.

OPARI BILA

Amaia Txabbarri arrasatearra pozik zegoen saldutakoarekin: "Olentzero dela eta jendea oparitarako zer edo zerren bila dator". Idoia Ibañezek, oster, krisiaren eragina igarri du: "Jendea kosta egiten zaio erostea". Gainera, uste du artisau feria kopuruak gora egin duela baina behar bezala zaindu barik: "Artisauen produktuak zaindu beharra dago; bestela, oker gabiltza".

Jose Lonbide > Barazki lehiaketaren irabazlea

"Aste honetako denboraleak eragina izan du barazkietan"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Eguerdi partean, Seber Altube plazan, barazki eta fruten lehiaketaren irabazleen izenak jakinarazi zituzten. Herriko saltokirik ederrenaren saria Maria Asun Iturberendako izan zen; fruta onenena, Maria Etxezarretendako; eta barazkiarena, Jose Lonbiderendako. Azken horrek gurekin hitz egiteko tartetxoa ateratu zuen.

Zorionak! Pozik egongo zara bosgarren urtez irabazita?

Bai, oso pozik nago. Arrasate bezalako azoka batean irabaztea oso pozgarria da. Ni aretxabalearra banaiz ere, lurzorua Aramaion daukat eta urte asko daramatzat urtero Santamasetara etortzen. Hain justu, hamar urte daramatzat jarraian etortzen. Santamasetakoaz gain, Santa Lutzin egunean ere, lehena izan nintzen Urretxun.

Bost urte jarraian irabazle. Non dago barazki horien gako?

Negutegietan hazita ez dardela eta, hortaz, osasungarriagoak eta freskoagoak direla. Horrez gain, azokarako produktu onenak gordetzen ditut.

Gainera, saltzen dituzun produktuak ekologikoak dira. Horrek ere eragina izango du...

Hala da. Kontuan izan behar da horiek pozoirik ez dutela eta zapore handiagoa ere badutela.



Jose Lonbide, Seber Altubeko postuan atzo.

MIRIAN BITERI

Azken 24 urteetan produktu ekologikoak hazi ditut nik.

Hori salmentetan igartzen da?

Bai, irabazteak salmenten igoera dakar. Hemen, gainera, jendeak ezagutzen zaitu eta badauki ze produktu dituzun.

Nolakoa da aurtengo uzta?

Aste honetako denboraleak kalteak egin ditu. Dena dela, eko-

logikoen kasuan, landarea osasuntsuago dago; modu naturalean hazten denez, hobeto eusten dio eguraldi txarrari.

Azokan zer eskaini duzu?

Neguko produktuak: porruak, hiru hazi mota, zerbak, hainbat letxuga klase, eskarolak, apioa, tipulak, berakatza, perrexila, txikorria, brokolia eta azalorea, besteak beste.

SANTAMAS LEHIAKETA > SARIDUNAK

Jose Lonbideren barazkiak, bosgarren urtez onenak

Arrasateko Gaizka Olabarrietak eta Iker Ezpeletak aipamen bereziak jaso zituzten

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jose Lonbidek ondo hartu dio eskua Santamasetako azokari, eta bosgarren urtez Aramaiokorendako izan da barazki lehiaketaren sari nagusia: "Urteak daramatzagu Arrasaterara etor-

tzen, eta dagoeneko jendeak ezagutu egiten gaitu. Erosleetako asko fidelak dira, urtero etortzen dira, baina bai, saria jasotzeko laguntzen du gehiago saltzen".

Udaleko ordezkariak 12:00ak pasatxoan hasi ziren sariak bana-



Gaizka Olabarrietak Udalaren aipamen berezietako bat jaso zuen.

M.B.

tzen, postu batetik bestera, eta saltokietan lanean zebiltzanek gustura hartu zuten haien bisita. Fruta lehiaketako saria Gabirira eraman zuen Maria Etxezarretak, eta herriko saltokirik onenaren saria Maria Asun Iturberendako izan zen.

Horrekin batera, Gaizka Olabarrietak, barazki ekologikoen egindako lanagatik; eta Iker Ezpeletak, egindako ogiagatik, aipamen berezia jaso zuten.

Lehiaketetako irabazleak

Barazki lehiaketa

1. Jose Lonbide (Aramaio)
2. Esozi Etxebarria (Soraluze)

Fruta lehiaketa

1. Maria Etxezarreta (Gabiria)

Herriko saltokirik onena

1. Maria Asun Iturbe
2. Rakel Perez Arenatza
3. Arantza Olabe

Eskaparate lehiaketa

1. Anes oinetakoak
2. Otamendi harategia
3. Txuntxurberde

Aipamen berezia: Ogia

Iker Ezpeleta

Aipamen berezia: Barazki ekologikoa

Gaizka Olabarrietak

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Garbittu

Errekabarren 3, behea ARETXABALETA

Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21

garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

Obra bukaerako garbiketak

Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

Kristalen garbiketak

Arropa garbiketak

AZOKA > GANADUA ETA HEGAZTIAK

Etxeko animaliarik onenak ipini zituzten ibarreko baserriarrek ikusgai

Ganaduetan, euskal arrazako hainbat buru ikusteko aukera izan zuten ume eta helduek

I.A. > ARRASATE

Ganaduak Laubide plazan eta hegaztiak Biteri etorbidean. Inguruan baserriarrek; jabeak eta ikusmiran joandakoak, eta umeak, animaliak ukitu guran.

Laubide plazan askotariko abelburuak ikusteko aukera izan zen; denak ibarreko baserrietakoak, gainera. Horietako batzuk euskal arrazatakoak. Astoak (Enkarterrietakoak), moxalak, zaldiak, behorak, pottokak, zezen txikiak, ardiak (latxak eta sasi ardiak), ahariak, euskal artzain txakurrak, ahuntz azpigorriak, idiak eta behiak (txarolesak, aurten ekarri dituzte lehen aldiz; asturriak, suizak eta blondak), animalia asko aukeran.

Antolatzailek esan zuten, "baserriarrek etxeko ganadurik onenak ekartzen dituzte; ondo garbituta, erakusteko gertu".

Ganadu salmentarik, ordea, ez da egoten. Udalako Patxi Murgoioren esanetan, "traturik ez da egiten, baina jendeak galdetzen du eta txahalak nahi izaten dituztenak badira.

OILOAK NAGUSI

Hegazti gehienak karioletan baziren, baina hesi handien barruan ere ipini zituzten. Aurten iaz baino barietate handiago izan da: oiloak, oilarrak, ahateak, antzarak, usoak, pumak... Arrasatetik ekarriak gehienak, baita Urretxutik, Sorluzetik eta Baradaiotik ere.



Juanjo Peciña eta Angel Lopez de Bergara sagar zuku eta sagardoarekin, eta sagardo basokada bat zerbitzatzen. IRATI AGIRREAZALDEGI

Juanjo Peciña > Aramaioko sagardogilea

"Uzta txikia izan da, baina kalitate onekoa; sagardoa ona izango da"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE

Aramaioko sagardogileek plazan saldu zituzten euren produktuak. Sagardoaz, zukuaz eta aurtengo uztaz jardun genuen Iturrieta sagardotegiko eta Aramaioko Sagardogileen Elkarteko Juanjo Peciñarekin.

Zer ekarri duzue Santamasetako azokara?

Sagardoa eta sagar zukuak: 30 sagardo kaxa eta 100 botila zuku. Iazko sagardoa da. Aurten goa fermentatzen dago eta urtarilerara arte ez dugu jakingo nolako atera den. Uzta ona izan da, nahiz eta gurean, Aramaion, sagar gutxi jaso dugun. Iaz ekarri genuen lehen aldiz eta oso estimatua izan zen.

Zein ezaugarri ditu Aramaioko sagardoak?

Aramaioko sagardoa herriko sagarrekin egiten dugu; urtero aldatzen da zaporea, uztaren arabera. Iaz, sagar gehienak Ara-

maioak izan ziren; orain dihardugu sagarren katalogazioa egiten, jakiteko zeintzuk diren sagardotarako egokiak. Sagardorako sagar mikatzagoak erabiltzen dira, eta zukurako, denak. Iaz oso pozik gelditu ginen sagardoarekin eta urtean barrena probatu dutenei ere asko gustatu zaie. Aurten goa, aurreikuspenen arabera, ona izango da.

Urtarrilean hasiko da sagardotegi denboraldia; nolako espero duzue Aramaioko sagardo berria?

Uzta txikia izan arren, kalitate onekoa izan da eta pozik gaudete. Espero dugu sagardo ona izateko.

"Urtarrilean ikusiko da sagardo berriak mikatzetik ala gozotik duen gehiago"

tea; urtarrilean ikusi beharko da gozotik edo mikatzetik duen gehiago. Sagardogileen Elkartetarako, aurten, Asturiastik ekarri ditugu sagarrak, zuku eta sagardo gehiago egin ahal izateko. Nik, Iturrietarako, Gipuzkoatik ekarri ditut sagarrak. Iturrietan 10.000 litro egin ditugu; eta elkarrean, 6.000. Baserri askotan etxerako egiten dituzte 300-400 litro, eta pixkanaka badirudi sagardoren kultura zabalduz doala Aramaion inguruan.

Azokan ipini duzue salgai, baina bestela, non eros daiteke Aramaioko sagardoa?

Aramaion denda batzuetan saltzen da, baina kanporako banaketarik ez dugu egiten, ekoizpena txikia delako. Gure asmoa da Baserri Berri proiektuaren baitan Aramaioko baserrietako produktuak eta sagardoa eta zukuak saltzea eta dendatxoren bat-edo ipintzea horretarako.



Antzarei begira geratu ziren asko.

XABIER URTZELAI

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)
Oinarritzko diseinua Golo Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Zortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaeta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldirakaria

ARETXABALETA > PROIEKTUA

Lausittako etxetxoan saneamendua egingo dute E-planari esker

Udalak lau multzotan banatu du dagozkion 718.000 euroak; irisgarritasunean, energian eta gizarte zerbitzuetan ere inbertituko du

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA
Aretxabaleako Udalak erabaki du zelan banatu Espainiako Tokiko Inbertsioen Estatu Fondotik bideratutako dirulaguntza. 718.000 euro iragarri zituzten eta lau multzo egin dituzte diru hori banatzeko. Batetik, hirigintza arloko proiektuak egiteko erabiliko dute, eta horien artean garrantzitsuena Lausitta kaleko saneamendu lanak dira. Galarzara bidean –zaharren egoitza parean– dauden hainbat etxebizitzara doazen ur eta saneamendu hodiak aldatuko dituzte.

UDALETXEKO MAILA KENDU

Beste diru kopuru bat irisgarritasun trabak ezabatzeko izango da; hau da, udaletxeko sarrera nagusian dagoen maila kendu eta ate erosoagoa jarriko dute.

Hirugarren diru partida energia eraginkortasuna hobetzeko izango da. Hala, udabe-



Lausittako etxebizitzatara doazen hodiak aldatuko ditu Udalak.

MIRARI ALTUBE

rrian herriko 150 bat farolaren lanparak aldatu zituzten eraginkoragoak izan eta era berean energia aurreztu eta gutxiago kutsatzeko, eta orain, aldatu

barik geratu ziren 60ren txanda izango da.

Eta laugarren partida Gizarte Zerbitzuetara bideratuko dute. Ikastaroak egiteko izango da hori.



MONIKA BELASTEGI

BERGARA > ERREPIDEAK

Asteon irekiko dute Bideberriko bi noranzkoko errepide berria

Bideberriko bi noranzkoko errepide berria "Gabonetako oporretarako" zabalik egongo dela esan du Agurne Barruso alkateak, "eguraldiak azken asfaltatze lanak eragozten ez baditu", behintzat. Errepide berriak jarraipena emango dio Ibagaraiakoari eta Bolurako bide nagusi bihurtuko da. Irudiko irlatxoak bideratuko du zirkulazioa. Orain arte Bolurako zirkulazioa Artekalek hartu du, baina azken hiru hilabeteetan itxita egon da galtzada-harriak konpontzeko. Alkateak gehitu du galtzada-harri berriak egonkortu arte itxita segituko duela eta bien bitartean ikusiko dutela errepide berriak zirkulazio guztia nola hartzen duen Artekale zabaldu ala ez erabaki aurretik.

ARRASATE > OBRAK

Abian da udalerrria eta Garagartza guztiz lotuko dituen bidegorria

Garaiatik ortu ekologikoetara, Fagorrera edo Garagartza eta Gesalibarrera joan ahalko da

UBANE MADERA > ARRASATE

Ibarreta eta Garagartza arteko bidegorri zatiaren proiektua idazteko lana adjudikatu du opor aurreko Udal Gobernuaren azkeneko batzarrek. LKS enpresari eman dio eta hark hiru hilabete baino lehen entregatu beharko du. Aurrekontua da 12.064 euro.

ZATI GARRANTZITSUA

Zati txiki samarra da idatzi behar duten projektuko, 400-600 metro inguruko bidegorria, baina badauka garrantzia; izan ere, behin eginda, Arrasaten eginda dagoen oinezkoen edo bizikleten ibilbideak jarraipena izango du

kanpoko auzo haietara. Hain justu, Garaia Berrikuntza Gunetik Garagartzan estreinatu berri dituzten ortu ekologikoetaraino, Fagor lantegi-raino edo Garagartza-Gesalibar auzoetaraino joan ahal izango da automobila erabili barik, oinez zein bizikletaz.

Hain zuzen ere, honako ibilbide hauxe izango du bidegorriak: Ibarretako eremutik pasatu, Fagor lantegiaren atzeko aldetik segi eta Arteagara doan bidearekin bat egingo du. "Behin proiektua idatzita, asmoa da lehenbailehen eraikitzea", adierazi du Izaro Agirrek, Udaleko Obra eta Zerbitzu Saileko teknikariak.

DEBAGOIENA > UDAL LIBURUTEGIAK

Ia ehun kultura lan, Neguko Gidan gomendatuta


LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Mankomunitateak emandako dirulaguntzari esker, Debagoieneko eta Legazpiko udal liburutegiek Neguko Gida atera dute, liburu, disko eta film gomendagarriekin. Ia 100 dokumentu agertzen dira; liburuak adinaren arabera daude sailkatuta.

Arrasateko haur liburutegiko arduradun Asun Agirianok lan batzuk nabarmentzen ditu: "Umeen tartean, Txeritxo izeneko ipuina gomendatuko nuke. Helduen tartean, *El arte de volar* komikia, Antonio Altarriba gasteiztarrak egindakoa, bere aitaren bizitzaren gainekoa".

Diseinua da beste alde deigarri bat. Elurtutako paisaia bat

agertzen zaigu, urrutian zuhaitz bakar bat eta harantz doan pauso arrasto bat; eta Mikel Laboaren *Gure Hitzak* abestiaren –Bernardo Atxagak idatzita– berba batzuk daude.



El arte de volar komiki liburua.

ELGETA > ERDIGUNERAKO PLANEAMENDU PROPOSAMENA

PER-aren eremua alda dezatela eskatzen dute

L.K. > ELGETA

Elgetako erdigunerako planeamendu berriaren proposamenak (PER) 16 alegazio jaso ditu. Horietatik 13 Salvador kaleko bizilagunek ipini dituzte. Zerbait bikoitietako etxebizitzaren atzealdeko fatxadan dauka muga PER-aren barruan orain lantzen dabilen eremuak, eta bizilagunek eskatzen dute muga hori metro batzuk harantzago eramatea, espazio bat utzita han zerbait egin ahal izateko.

Beste bi alegazio dagozkie herri sarreran dauden etxe familiarak batzuei. PER-ak aurrekusten du horiek botatzea eta 11-12 bat etxebizitza egitea, babes ofizialekoak edo tasatuak. Bada, jabeok eskatzen dute, etxebizitza berriak eraikitzekotan, gehiago egin daitezela, 18 edo 19 bat; edo libreak izan daitezela.

Elgetako Abertzaleek alegazioa ipini diote aurrekusten den aparkaleku bati. Beste alegazio batzuk ere ipini dituzte.

Piztu LTDa

Askoz gehiago gozatuko duzu

Kalitate Handiagoa


Teknologia digitalak irudi- eta soinu-kalitate handiko telebista dakarkigu: zaratarik gabe, interferentziarik gabe eta irudi bikoitzik gabe.

Guztientzako Programazioa

20 telebista-kanal baino gehiago izango dituzu zure eskura: betikoak eta kanal-eskaintza gehigarri handia, era askotako edukiekin (musika, kirolak, haurrentzako, filmak, telesailak...).

Zerbitzu Elkarreragileak

LTDri esker, telebistako kide aktiboa bilakatuko zara. Hori guztia zure urrutiko kontrolarekin.



Datorren **urtarrilaren 10ean** emanaldi analogikoak bukatuko dira Gipuzkoako udalerrri batzuetan *. Telebista ikusten jarraitu nahi baduzu egiaztatu zure telebista-instalazioa LTDra egokituta dagoen, horrela ez bada, erosi deskodegailu bat edo deskodegailua duen telebista.

* Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Legazpi, Leintz Gatzaga, Mendaro, Oñati eta Sorluze.

Informazio gehiago: 901 201 004

Abantailaz betetako kluba!

Goiena
kluba

Ongi etorri Goiena Klubera

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

Goiena Klubeko txartela

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean. Bazkide-txartelarekin harpidetzak dakarren abantaila eta onura eskusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu. Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!



Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.

- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia:
 - DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak...

eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

BARCELÓ BIDAIAK

BERGARA/ARRASATE
• **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)
• Laser depilazioa: hanka osoa + izterondoak
• **-%15** + opari besapekoak (axilak).
• **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
• **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainenetan edo bekainenetan.
• **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA

ARETXABALETA
• **-%15** zerbitzu guztietan.

IKER SUKALDEAK

ARRASATE/OÑATI
• Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

BERGARA
• **-%15** matrikula ordaintzean.

ESTACIÓN DE SERVICIO

ARRASATE (MECA)
ARRASATE
• **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
• **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)
• **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
• **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

Etan gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu

AUTOBERRI

ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA
• **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
• **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
• Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
• Erosketaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

CLINICA DENTAL BERGARA

BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)
• **-%10** zerbitzu guztietan
• **-%15** inplanteetan.
• 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

ZIENTZIEN KUTXAGUNEA

DONOSTIA
• Bi erosi eta bat ordaindu

AQUARIUM

DONOSTIA
• Bi erosi eta bat ordaindu

TXURI-URDIN IZOTZ JAUREGIA

DONOSTIA
• Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
• **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
• **-%10** zubi eta oporraldietan.



2010 urteko kuota: **45 €**
Informazio gehiago: Goiena Kluba
Telefonoa: **943 08 10 50**
Posta-e: **kluba@goiena.com**

Gabonetan

NON-ZER

ABENDUAK 23 - URTARRILAK 6

Eguaztena

23

MUSIKA

BERGARA

Musika kaleko lau gunetan
Erdiguneko merkataritza bultzatzeko asmoz musika emanaldiak egongo dira kaleko lau gunetan: Munibe plazan, Irala kalean, Fraiskozurin eta Simon Arrietan. Bedelkarrek antolatu du ekitaldia, Udalaren eta *Xpressionk!!!* elkartearen laguntzarekin. Abenduaren 23an eta 26an eta urtarrilaren 2an eta 4an, 18:00etan.

Eguena

24

KIROLA

ARETXABALETA

Futbol Eskolako txapelketa
Txapelketa Debagoieneko futbol eskolen artekoa izango da: Bergara, Arrasate, Oñati eta Aretxabaleta. Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era (15:30-18:00), Ibarra futbol zelaian.

BERGARA

Erremonteko Martiko txapelketako finalerdiak
Urrutia eta Lizaso aurrez aurre, 17:00etan Udal Pilotalekuan. 12 euro.

BESTELAKOAK

LEINTZ GATZAGA

Gabon kantuan baserriz baserri
Gabonetako kantuak abestera joango dira umeak gurasoekin baserriz baserri. San Migel plazan, 09:00etan.

BERGARA

Presoen alde kantuan
Urtero bezala eta Olentzero lagun dutela presoen alde aterako dira kantuan, goizetik.

BERGARA

Txapa irratia kalabaza
Azkeneko urteetako ohiturari jarraituz, Txapako kideek kalabaza aterako dute kalera dirua batzeko asmoz. Nork



Gabon kantak eta Olentzero izango dira egueneko protagonista nagusiak.

GOIENKARIA

asmatuko du kalabazaren pisua? Euro baten truke parte hartu ahal izango da. 11:00etan hasita, herriko kaleetan.

ESKORIATZA

Gabonetako kantak
Herriko haurrak Gabonetako kantak abesteko elkartuko dira. 12:30ean, herriko plazan.

ARRASATE

Olentzeroren etorrera
Txoronpiok eta Txoronpiak Olentzerorendako gutunak batuko dituzte goizean. Munar, Uribe, San Andres, Zigorrola eta Santa Teresa auzoetan, 11:40an. Seber Altube Plazan, 13:15ean. Olentzero 18:00etan iritsiko da: San Andres (Bañez doktorea), Abaroa, Garibai, Maala, Portaloia, Erdiko kale eta Herriko Plaza. 19:30ean, berriz, Olentzerori agurra egingo diote, Mutil dantza eta Herri dantza eginez.

OÑATI

Olentzero herriko kaleetan
Martiniola Kultur taldeak antolatuta eta Jose de Azpiazu musika eskolakoekin laguntzarekin 18:00etan, Otadui Zuhaitzitik.

OÑATI

Bigarren eskuko azoka
Gaztetxeak antolatuta, bigarren eskuko liburuak eta

diskoak erosteko azoka. Abenduaren 24an eta 26an 16:00etatik 19:00etara, gaztetxean.

ESKORIATZA

Olentzerorendako eskutitzak jasoko dituzte

Olentzeroren laguntzaileak haurren eskutitzak jasoko dituzte, 12:30etik 13:30era, herriko plazan. Olentzero 18:00etan iritsiko da. Ibilbidea: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta herriko plaza.

ARETXABALETA

Olentzeroren etorrera
Gabon kantak abesteko dituzte herriko kaleetan, eta Herriko plazan hasiko dira 10:30ean. Olentzero iritsiko da herrira eta Loramendi kaletik Herriko plazaraino joango da. Udal euskaltegian, 18:30ean.

ARAMAIO

Olentzeroren etorrera
Olentzero 18:00etan menditik eskola ingurura iritsiko da.

ELGETA

Olentzeroren bila Intxortara
Urteroko mendi txangoa egingo dute umeek Intxorta-

ra. Plazatik 11:00etan. Gabon kantak abesteko eta entzuteko aukera egongo da Herriko plazan, 18:00etan. Olentzero 18:30ean etorriko da Herriko plazara, Salvador kaletik behera.

BERGARA

Olentzero eta Mari Domingi
San Martzialetik jaitsiko dira bi zaldiz tiratutako karrozan. Gutunak bidean batuko dituzte. 19:00etan azoka ostean.

ANTZUOLA

Olentzeroren kalejira
Eskolako umeen eta gurasoen eskutik, Olentzeroren kalejira; arratsaldean, Olentzero eta Mari Domingirekin kalejira eta ekitaldia. Goizean, herriko kaleetan eta 18:30etik aurrera, herriko plazan. Umeek Olentzerori eta Mari Domingiri gutunak emateko aukera izango dute.

MUSIKA

ESKORIATZA

Trikitixa herriko kaleetan
Herriko trikitixa eskolako ikasleekin kalejira, 13:00etan, herriko kaleetan.

Eguena 24

OLENTZERO

ESKORIATZA

Olentzerorendako eskutitzak jasotzen

Umeen eskutitzak herriko plazan jasoko dituzte, 12:30etik 13:30era. Ibarreko herri guztietan ikusiko dugun irudia.

OÑATI

Musika Bandaren kontzertua
Oñatiko Udal Musika Bandak Gabonetako kantuak eskainiko ditu, Foru plazan 19:00etan hasita.

ARRASATE

3 aretoan musika elektronikoa
Kogollo Party Crew taldearen eskutik festa elektronikoa izango da 3 aretoan, 01:00etan hasita.

BERGARA

Gaztetxean kontzertua
Extorsion taldearen eta beste talde baten (FBA eta Nobox taldeetan ibilitakoek sortutakoa) kontzertua izango da gaztetxean, 02:00etan hasita.

Egubakoitza

25

KIROLA

BERGARA

Erremonteko Martiko txapelketako finalerdiak

Koteto Ezkurra eta Zeberio II.ak jokatu dute, 17:30ean. Sarrerak 12 euro.

(Abenduak 25, jarraipena: 10. orr.)

(Abenduak 25: 9. orrialdetik dator.)

BESTELAKOAK

OÑATI

Kontzentrazioa plazan

Herriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta hileko azken egubakoitzeko kontzentrazioa egingo dute. Foru plazan, 19:30ean.

BERGARA

Presoen aldeko elkarretaratzea

Urteko azken egubakoitzeko elkarretaratzea izango da 19:30ean, San Martin plazan.

MUSIKA

ARRASATE

3 aretoan kontzertua

Bacon Maiden, Fat Lizzy eta MST taldeek kontzertua egingo dute 3 aretoan, 23:00etan.

Zapatua

26

KIROLA

ARETXABALETA

Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketa

Arizmendi Ikastolak antolatuta emakumezkoen txapelketa egingo dute. Infantil eta kadete mailako futbol zortziko txapelketa. 09:00etan hasita Almenen.

ARRASATE

Luis Lopez 'Bonba'-ren omenezko partidua Mojategin

Mondraren alde jokalarri eta entrenatzaile moduan egindako lanagatik omenduko dute Luis Lopez Bonba. Realeko eta Mondrako beterranoen arteko partidua Mojategin, 12:00etan.

OÑATI

Koadrilen arteko areto futbol txapelketa

Zubikoa kiroldegian jokatuko dute koadrilen arteko areto futbol txapelketa. Abenduaren 26an eta 27an egun osoan zehar Zubikoa kiroldegian.

BERGARA

Gabonetako 3x3 Soralue.Coop saskibalo txapelketa

Bergara Kirol Elkartek antolatuta saskibalo jaiak egingo dute Udal Pilotalekuan. 3x3 txapelketan jokatuko dute benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutikoek. 11:00etan benjaminen eta 16:00etan gainontzekoek.

ARRASATE

Gabonetako Euskadiko Kutxa Saskibalo Txapelketa

Peixegalego (Galizia), Cai Zaragoza, Cornella (Bartzelona), Clavijo (Errioxa), Euskadiko selekzioa eta MUko gazte mailako taldea lehiatzen. Ointzek antolatuta, abenduaren 26an, 27an eta 28an egingo dute txapelketa, Iturripeko kantxan.

ELGETA

Umeen pilota txapelketa hilaren 26tik 29ra

Hilaren 26tik 29ra jokatuko dira aurrebenjamin, benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako partiduak. Finalak urtarrilaren 2an jokatuko dira 10:30etik aurrera. Izenematea zabalik udaletxean.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

Argazki erakusketa

Urtean barrena herrian egindako hainbat ekintza argazkitan jaso eta ikusgai ipiniko dituzte Gabonetan. Abenduaren 26an eta 27an eta urtarrilaren 2an eta 3an Olaranen, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

BESTELAKOAK

ESKORIATZA

Uretako parkea

Uretako hainbat puzgarri egongo dira ume, gazte eta helduendako. Abenduaren 26an eta 27an, igerilekuan. 11:00etatik 13:00etara, 11 urtetik gorakak; 17:00etatik 18:30era, 0 eta 6 urte bitartekoak gurasoekin; eta 18:30etik 20:00etara, 7 eta 10 urte bitartekoak.

ARRASATE

Kulturaniztasunaren festa

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik, umeendako tailerrak, herrialde ezberdinetako pintxo dastatzea; erakusketa eta musika emanaldia. Herriko Plazan, 17:00etatik 21:00etara.

OÑATI

Makalenakoen antzerkia

Olaitturri Elkartekoek 1542-Oñatiko hitzarmena antzezlanaren egingo dute. Gonbidapenak, kultura etxean. Santa Ana aretoan, 19:00etan eta 22:30etan.



Eguaztena 23
MUSIKA

ARRASATE
The Georgia Mass Choir

Gospel tradizionalaren eta arrakasta handiko kantuen errepertorioa ekarriko dute. Amaian, 20:00etan.

The Georgia Mass Choir-eko kideak, kantuan.

ARAMAIO

Bertso saioa

Kultura etxean bertso saioa egingo dute 19:00etatik aurrera. Igor Elortza, Onintze Enbeita, Unai Agirre eta Xabi Igoak jardungo dute bertsoan. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Idoia Beitiak jardungo du.

ZINEMA

BERGARA

Bi film

Angeles y demonios filma emango dute Zabalotegin, 19:30ean eta 22:30ean; eta 27an, domekan, 19:30ean. Ponyo en el acantilado zapatuan eta domekan, 17:00etan.

OÑATI

Umeendako zinema

Txori urdin filma kultura etxeko zinema aretoan, abenduaren 26an eta 27an, 17:00etan.

MUSIKA

ARRASATE

Goikobalu Abesbatza

Bedoñako elizan, 19:30ean. Bedoña Batu elkarteak antolatutako kontzertua.

ARRASATE

3 aretoa

Des-Kontrol taldeak disko berria aurkeztuko du, 23:00etan.

OÑATI

Plan B taldea gaztetxean

Kontzertua egingo dute Plan B taldeak beste talde gonbidatu baten laguntzarekin. Gaztetxean, 18:30ean.

ARRASATE

Backmaik, Gure Lekun

Backmaik taldearekin, rock-and-rolla, hardcorea, pop-rocka eta bestelako musika estilo batzuk zuzenean eta taberna giroan gozatzeko aukera. Gure Leku tabernan, gauerdian.



Ganbara Txiki abesbatzak Beltz ipuina eskainiko du Oñatiko Santa Ana aretoan.

Domeka

27

KIROLA

ARETXABALETA

Gabonetako Emakumezkoen Futbol Txapelketa

Lauko torneo jokatuko dute Realak, Eibarrek, Lagunakek eta Debagoieneko selekzioak. Ibarra futbol zelaian, 09:30ean hasita.

ARRASATE

Gazte Txokoak, futboleant

Urteroko futbol txapelketa. Taldeek aurretik eman behar dute izena. Mojategin, 16:00etan.

ESKORIATZA

Rally Game lasterketa

Dos Pistones elkarteak antolatuta, Debagoieneko 1/18 rally game saria. 11:00etan, udal pilotalekuan.

ARRASATE

3. 'Txelis' memoria, infantil txikien torneo

Infantil txikien torneo Mojategin. Reala, Mondra, Bergara eta Sanse taldeek hartuko dute esku.

OÑATI

Paperezko hegazkinen lehiaketa

Gazteek wii txapelketa izango dute, 16:30ean, gaztelekuan. Parte-hartzaileek Internet bidez aurkitu ahaliko dute erabiliko dute hegazkinaren modeloa. Gaztelekuko kuboan, 18:00etan.

ZINEMA

ARAMAIO

Zinema

Kultura etxean zinema emanaldia egongo da herriko txikitxoendako 17:00etatik aurrera.

ANTZUOLA

Zinema

El señor de las moscas gaztetxean, 17:30ean.

BERGARA

Zinema

LT22 Radio La Colifata gaztetxean, 18:00etan.

ERAKUSKETAK

BERGARA

Beart elkartearen erakusketa

Bergarako artisten elkarteok euren lanak erakutsiko dituzte. Abenduaren 27ra arte, Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan, 12:00-14:00.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA

Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoak

Munduan zehar ikuskizuna Arkupen, 17:00etan. 3 euro.

ESKORIATZA

Wii txapelketa

Gazteek wii txapelketa izango dute, 16:30ean, gaztelekuan.

OÑATI

Bertso afaria gaztetxean

Gaztetxean egingo dute bertso afaria, 20:30ean. 3 euro.

MUSIKA

ARETXABALETA

Abesbatzaren emanaldia

Aretxabaleta Abesbatzak emanaldia eskainiko du Jose Luis Franzesena organo jotzailearekin batera. Parrokian, 19:00etan.

ARAMAIO

Bizente Goikoetxea abesbatzaren kontzertua

Domekako mezaren ostean herriko abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan.



Domeka 27, astel. 28
MUSIKA

OÑATI

Ganbara Txiki

Josu Elberdinen eta Andoni Morenoren *Beltz* ipuin musikala taularatuko du. Abenduaren 27an 19:30ean, eta 28an 17:00etan eta 19:30ean.

GOIENKARIA



Zapateria 26
MUSIKA

ARRASATE

Gose eta Meri Mey
gaztetxean

Gose taldeak eta Meri Mey bakarlarriak emanaldia egingo dute zapatuan Arrasateko gaztetxean, 22:00etan.

Gose taldekoek *Gorria* diskoa kaleratu berri dute. Arrasateko gaztetxean joko dute.

GOIENKARIA

eurotan; egun erdikoak 2,50 eurotan. Abenduaren 29an eta 30ean, 11:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 20:00etara.

LEINTZ GATZAGA

Gasteizko izotz pista

Gurel elkarteak antolatuta, gazteak izotz pista doaz.

OÑATI

Irteerak Donostiara eta Bilbora

Gaztelekuak bi irteera egingo ditu Donostiako izotz pista eta akuariumera, eta Bilboko Gabonetako parkera. Donostiako abenduaren 29an, eta Bilbokoa urtarrilaren 4an.

ELGETA

Umeendako jolasak

Antzara-joko erraldoia eta Ilargiraino jolasean egingo dituzte 6 urtetik gorako umeendako 16:00etatik 17:00etara. Ume txikiendako jolasak egongo dira. Mozorro festa, txokolate jana eta disko festa 17:00etatik 19:00etara egingo dituzte.

Astelehena

28

KIROLA

ANTZUOLA

Alfonso Castoren omenez areto futboleko txapelketa

Alfonso Castoren omenez umeen areto futbol txapelketa. Pilotalekuan jokatu da, 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 18:30era. Sari banaketa, abenduaren 29an, eguerdian, pilotalekuan egingo dute.

ARRASATE

Gabonetako pilota txapelketa

Benjamin, alebin eta infantil mailako pilota txapelketa. Abenduaren 28an, 29an, 30ean eta 31n, Uarkapen. Partiduak 16:00etan hasiko dituzte. Finalak hilaren 31n, 16:00etan.

BESTELAKOAK

ESKORIATZA

Gabonetako parkea

Ohe elastikoak, puzgarriak, ludoteka, txikitxoendako trena, zezen mekanikoa, rokodromoa eta tailerrak izango dira. Egun bakarreko

txartelak 4 euro balio du eta Gabonetako parkerako sarre-rak 10 euro. Abenduaren 28an eta 29an, kiroldegiko kantxan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ARRASATE

Gazte Txokoa, gaztetxera

AGAKOrekin elkarlanean, gaztetea ezagutzeko aukera izango dute gaztetxoek. Besteak beste, irrati, serigrafia eta malabarren tailerra izango dute, eta bazkaria ere bertan egingo dute. Txatxilipurdiko bulegoan elkartuko dira, 11:00etan.

BERGARA

Umeendako jolasak Jam aretoan

Dohaineko jolasparkea antolatu dute. Birziklatze tailerrak, bideojokoak, puzgarriak, rokodromoa... Abenduaren 28, 29 eta 30ean, 10:30-13:00 eta 15:00-19:00 ordutegian, Jam-en.

ESKORIATZA

Izotz pista irteera

Gasteizera joango dira gazteak, izotz pista.

OÑATI

Ur-jokoak igerilekuan

Umeendako ur-jokoak egingo dituzte kiroldegian. 10:00etatik 12:00etara, eta 16:00etatik 18:00etara.

ARETXABAleta

Eskoriatzako Gabon parkera

4 eta 7 urte arteko umeak Eskoriatzako Gabonetako parkera joango dira ludotekako begiraleekin.

ELGETA

Gabonetako jolasparkea

Puzgarriek, malabarrek eta askotariko jolasek osatuko dute Gabonetako jolasparkea. 16:00etatik 19:00etara udal pilotalekuan. Prezioa: 2,5 euro.

LEINTZ GATZAGA

Korapilo ikastaroa

Marinelen korapiloak egiten irakatsiko diete umei, kultur etxean.

ANTZERKIA

BERGARA

Umeendako antzerkia

Dindaia antzerki taldeak *Xamarikoen kutxa magikoa* antzezlan egingo du. 3-10 urte arteko umei zuzenduta dago. Zabalotegin, 17:30ean. 3 euro.

ARAMAIO

Txotxongilo emanaldia

Aramaioko txikitxoek txotxongiloen magiarekin gozatzeko aukera izango dute. *Harritzeko ipuinak* izeneko emanaldia eskainiko du Bihar taldeak kultura etxean 17:00etan.

Martitzena

29

BESTELAKOAK

ESKORIATZA

Gazteen irteera

Gazteek egun guztiko irteera izango dute; ziurrenik, Donostiara joango dira.

ARAMAIO

Umeendako tailerrak

Ludotekan tailerrak egingo dituzte 12:00etatik aurrera.

ARRASATE

Gazte Txokoa

Abenduaren 29an Gasteizko izotz pista joango dira. Gero Garaion elkartekoekin egingo dira, Ozaetan bazkaldu eta bertan tailer batzuk egiteko. Irteera 9:30ean Garibaitik; prezioa, 5 euro.

LEINTZ GATZAGA

Kaxa apaintze ikastaroa

Ume eta gaztetxoendako, kultur etxean.

OÑATI

Gabonetako haur parkea

Kiroldegiko kantxan puzgarriak jarriko dituzte umeendako. Egun osoko sarrerak 4

KIROLA

BERGARA

Gazte mailako Gabonetako futbol txapelketa

Gabonetako futbol txapelketa jokatu dute abenduaren 29an, 30ean eta 31n. Real, Athletic, Eibar eta Bergara taldeetako gazteak izango dira lehian. Ipintzan finalerdiak 29an eta 30ean (17:00) eta finala 31n, Agorrosinen (15:30). Finalean, Pedro Jausoro eta Onesimo Manzanori omenaldia.

ANTZERKIA

ARAMAIO

Ipuin kontalariak

Ipuin kontalarien bi saio egingo dira; 2 eta 6 urte bitartekoendako 17:00etan hasita, eta 7 urtetik aurrerakoendako 18:00etan hasita. Mariolas ipuin kontalariak *Sorginen kontuak* ipuina kontatuko du.

ZINEMA

ARAMAIO

'Itsasoaren alaba'

Gaztetxean, 17:30ean. Filmaren zuzendaria izango da hitzaldia egiten. (Abenduak 29, jarraipena: 12. orr.)

markeline
haurrentzako moda
0 hilabetetatik 16 urtera

ESKAINITZA BEREZIAK
Gabon zoriontsuak guztioi eta urte berri on!

MISS SIXTY SCOTCH DDP berlingöt fransa kids GAS cri cri BÓBOL mim-pi

Herri Lagunak 6, behea BERGARA Tel.: 943 76 05 24

(Abenduak 29: 11. orrialdetik dator.)

OÑATI

Zinema*Zorion perfektua* kultura etxeko zinema aretoan, 19:30ean.**MUSIKA**

BERGARA

Disko jartzailea eta reggaea
Munibe plazan, 20:00etan.**Eguaztena****BO****KIROLA**

ANTZUOLA

Pilotako Gabon saria

Olalde pilota elkarteak antolatuta, umeendako txapelketa. Abenduaren 23an eta 30ean, arratsaldean, pilotalekuan.

BESTELAKOAK

ESKORIATZA

Bilboko Pina irteera

Bilboko Pina egun osoko irteera, 10:00etan. 8-12 urteko neska-mutikoei zuzenduta.

ARAMAIO

Umeendako tailerrak

Ludotekan umeendako tailerrak egingo dituzte 12:00etatik aurrera.

ARRASATE

Gazte Txokoa

Abenduaren 30ean Bedoña auzora joango dira Paintball-ean jokatzeko. Irteera 10:00etan Garibaitik; prezioa, 10 euro. Urtarrilaren 2, 3 eta 4an irteera egingo dute Elosuko aterpetxera. 12 eta 14 urte arteko gazteendako ekimena da eta bertan gaubelak, lehiaketak eta denetariko jokoak egingo dituzte. Prezioa: 10 euro.

LEINTZ GATZAGA

Patin ekitaldia

Patinekin arratsalde pasa egingo dute Gureleko guraso eta umeek. Abenduaren 30ean eta urtarrilaren 5ean, pilotalekuan.

ARETXABALETA

Bilboko Gabon parkera

8 eta 12 urte arteko gaztetxoak Bilboko Gabonetako parkera joango dira ludotekako begiraleekin.

ARAMAIO

Haur dantzaldia

Herriko gaztetxoendako dantzaldia eta erromeria egongo da kiroldegian 17:00etan.

ANTZERKIA

BERGARA

Umeendako magia saioa

Marsel magoak egingo du eta 5-14 urte arteko gaztetxoei zuzenduta dago. Zabalotegi aretoan, 17:30ean. 3 euro.

HITZALDIAK

OÑATI

Ilatargi taldearekin hitzaldia*El Correo*-ko kazetari eta Hagonia blogaren egile Luis Alfonso Gamezek *Experimentando lo paranormal* hitzaldia egingo du kultura etxean, 19:30ean.**ZINEMA**

ELGETA

Zinema*La suerte de Emma*, Sven Taddicken-en komedia Espailoiko zineklubean, 21:30ean.**MUSIKA**

BERGARA

Kataia taldearen emanaldia

Kalejiran egingo dute emanaldia, Simon Arrietan abiatu eta Munibe plazara iritsi arte, 20:00etan.

Eguena**BI****KIROLA**

ELGETA

Nagusien pilota txapelketa

Urtezahar eguerdian, hilaren 31n, jokatu dira Lau terdia-



Martinez de Irujo Bergaran izango da Urteberri egunean.

GOIENKARIA

Egubakoitza 1**PILOTA**

BERGARA

Pilotari profesionalen jaialdia

Aspe enpresako pilotariekin jaialdia antolatu du Udalak urtarrilaren 1erako. Martinez de Irujo eta Arrutik Aritz Lasaren eta Pascualen kontra jokatu dute partidu nagusian. 17:00etan hasiko da jaialdia.

ren barruan herri mailako txapelketaren finalak.

ESKORIATZA

San Silbestre lasterketa

Abenduaren 31n. Haurrendako lasterketa 12:00etan. Ondoren txistorra jana. Eta, nagusien-dako lasterketa 17:00etan, herriko plazan. Ondoren luncha.

OÑATI

San Silbestre krosa

Antxintxiketan taldeak antolatuta San Silbestre krosa, 17:00etan. 16:30ean, gaztetxoendako lasterketak.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA

Bizar Zuriren etorrera

Errege magoen mezulari den Bizar Zuri iritsiko da herrira. Udak euskaltegian, 18:30ean.

OÑATI

ManifestazioaHerriko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta manifestazioa egingo dute *Eskubide guztien jabe, euskal presoak Euskal Herrira* lelopean. Abenduaren 31n Foru plazatik irtengo dira.

ARAMAIO

Brindisa

Gazte Asanbladak antolatuta 00:30ean, urteari ongi etorria emateko, brindisa egingo dute herriko plazan.

ESKORIATZA

Presoen aldeko brindisa

Urte hasierako kanpaien ostean, presoen aldeko brindisa, 01:00etan herriko plazan.

BERGARA

Presoen aldeko brindisa

Herrian egon ezin duten euskal presoen eta iheslarien

aldeko brindisa 00:00etan, San Martin plazan.

MUSIKA

OÑATI

Musika Bandaren kalejira

Udal Musika Bandak kalejira egingo du, 19:00etan.

ARRASATE

Arrasate Musikal

Arrasate Musikaleko Bandak Gabon zahar eguneko kontzertua eskainiko du Amaia antzokian, 13:00etan. Aurretik, 11:00etan, kalejira egingo dute.

BERGARA

Karaokea gaztetxean

Urte berriari ongi etorria egiteko, 03:00etatik aurrera karaokea gaztetxean.

Egubakoitza**I****MUSIKA**

ARRASATE

3 aretoa

Doinu elektronikoaren maratonia. DJ gonbidatuak: Ima, Pablo Akaros, Koldo int., Balza Kog., Alkate klo., Asier eta Ibok eta Hartz Nothing Without. Festa 01:00etan hasiko da.

ARRASATE

Festa elektronikoa Gure Lekun

Elektik Indautx Lokal System-en eskutik festa elektronikoa, 01:00etan hasita.

Zapatua**2****KIROLA**

OÑATI

Ainhoa Lazkanoren omenezko saskibalo txapelketa

Aloña Mendiko saskibalo sailak antolatuta XII. saskibalo txapelketa jokatu dute kiroldegiko kantxan. Urtarrilaren 2an, egun osoan zehar.

(Urtarrilak 2, jarraipena: 14. orr.)

trinmer
telecomunicacionestdt
televisión
digital
terrestre

Badator Lurreko Telebista Digitala Azken egunak aldatzeko!

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxes: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada giro!

Arlutz taberna



Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Anduaga Jatetxea



Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak

Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54

IOSU

*taberna
harategia*

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08



OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE



Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

Gurea

TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



Loteria eta kinielak

DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

(Urtarrilak 2: 13. orrialdeak dator.)
BERGARA

Umeendako jolas parkeak
3 eta 9 urte artekoendako jolasak jarriko dituzte Udal Pilotalekuan. 9 eta 12 urte artekoendako, berriz, uretako jolasak egingo dituzte Agorrosinen. Pilotalekuan jarriko dituzte, besteak beste, puzgarriak, ludoteka, kale heziketa zirkuitua, *virtual dancing* eta bideo jokoak. Agorrosinen ere askotariko puzgarriak egongo dira. Egun osoko sarrerak balioko ditu 5 euro. Urtarrilaren 2an, 3an eta 4an.

LEINTZ GATZAGA

Donostiako Kutxagunera
Gurel elkarteko guraso eta umeak Donostian dagoen Kutxagunera joango dira.

BESTELAKOAK

ESKORIATZA

Elosuko aterpean hiru egun
12 eta 14 urte bitarteko gazteak Elosuko aterpetxera joango dira, urtarrilaren 2tik 4ra bitartean.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA

Atxorrotzen egindako industrien gaineko erakusketa
Atxorrotzen egindako industria arkeologikoaren gaineko informazioa eta aurkitutako elementuak ikusgai izango dira. Urtarrilaren 15era arte, Ibarraundi museoan, astelehenerik egubakoitzera, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean eta 6an itxita.



Erregeen kabalgata Bergaran, Arrasaten, Aretxabaletan eta Oñatin izango da, urtarrilaren 5ean.

GOIENKARIA

**Martitzena 5
KABALGATA**

OÑATI/ARETXABALETA/
BERGARA/ARRASATE

Erregeen kabalgata
Oñatin, parrokia ondotik irtengo da kabalgata, 18:30ean; Bergaran, kultura etxetik abiatuko da, 19:00etan; eta Aretxabaletan, udal euskaltegitik 18:30ean.

ANTZERKIA

ARAMAIO

'Barne iluna?'

Umeendako antzerki emanaldia egongo da kultura etxean 17:00etan. Hazika taldeak eskainiko du.

ZINEMA

OÑATI

Umeendako zinema

Pluk filma kultura etxeko zinema aretoan, urtarrilaren 2an eta 3an, 17:00etan.

Domeka



DEIAK

DEBAGOIENA

Intxortara mendi irteera

Euskal Herriaren alde bizia emandakoei omenaldia.

KIROLA

ELGETA

Skate saioa

Skatean trebatzeko aukera izango dute herritarrek 11:00etatik 12:30era Espaloian. Prezioa: 2 euro. Izenematea zabalik ludotekan.

ANTZERKIA

OÑATI

Umeendako antzezlan

Baso sorgindua taldeak *Patata tropikala* antzezlanaren emanaldi bikoitza egingo du umeendako. Sarrerak leihatilan, edo alde aurretik, kultura etxean eros daitezke 3 eurotan. Santa Ana aretoan, 16:30ean eta 18:00etan.

ARETXABALETA

Eriz magoa

Ume eta gaztetxoendako ikuskizuna eskainiko du Eriz magoak. Arkupe kultura etxean, 17:00etan. 3 euro.

ZINEMA

ARAMAIO

Umeendako zinema

Haurrendako filma emango dute kultura etxean 17:00etan.

BERGARA

Gaztetxean zinea

La marcha del millon de hombres gaztetxean, 18:00etan.

Astelehena



KIROLA

LEINTZ GATZAGA

Frontenis txapelketa

Herriko gazteek txapelketa jokatuko dute pilotalekuan.

BESTELAKOAK

ANTZUOLA

Haur parkea

Umeendako puzgarriak. Pilotalekuan, 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara.

OÑATI

Oñati ezagutzeko lehiaketa

Turismo bulegoak antolatuta 7-12 urte artekoendako lehiaketa egingo dute herriko kaleetan, 10:00etan hasita. Izena turismo bulegoan eman behar da.

Martitzena



BESTELAKOAK

ESKORIATZA

Dendarien zozketa

Herriko dendariak *Eskoriatzan erosi eta sari bikainak irabazi* promozioaren zozketa egingo dute, eguerdian.

BERGARA

Bizar zuri

Herriko kaleetan barrena ibiliko da umeen gutunak jasotzen. 17:00etan.

ARETXABALETA

Errege magoen etorrera

Errege magoak iritsiko dira herrira eta Loramendi kaletik Herriko plazaraino joango dira musika eskolako ikasleak lagun hartuta. Udal euskaltegian, 18:30ean.

BERTSOAK

OÑATI

Bertso saioa

Oñatiko Bertso Eskolak antolatuta, bertso jaialdia egingo dute Maialen Lujanbiok, Andoni Egañak, Aitor Mendiluzek, Uxue Alberdik eta Beñat Gaztelumendik. Kiroldetik pilotalekuan, 22:30ean.

DEIAK

BERGARA

Euskal presoaren aldeko bilkura

Eskubide guztien jabe euskal presoak Euskal Herrira lelopean manifestazioa 18:00etan, San Martin plazatik abiatuta.

MUSIKA

BERGARA

Drindots taldearen emanaldia

Gazteria Kontseiluak antolatuta, Munibe plazan, 23:00etan.

BERGARA

Kataia taldearen kontzertua

Gaztetxean 23:00etan hasita.

Eguaztena



MUSIKA

OÑATI

Musika Bandaren kalejira

Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua. 11:00etan, eta 12:45ean Santa Ana aretoan.

ERAKUSKETA

BERGARA

Wolframioa eta Elhuyar anaiak

Zientzia, Teknologia eta Gizartea Euskal Herrian: Elkarte, Elhuyar anaiak eta Wolframioaren isolatzea delako erakusketa osoko bilkuren aretoan. Urtarrilaren 7ra arte, lanegunetan, 18:00-20:00 eta 12:00-14:00 ordutegian.

ZINEMA

OÑATI

Umeendako zinema

Animal channel haurrendako euskarazko filma eskainiko dute kultura etxeko zinema aretoan, 17:00etan.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

GAIA ERAKUSKETA IRAUNKOR BERRIA! 1000 m² baino gehiago handitu berri dugun erakusketa. **Energia** eta **Natura** dira erakusketa honetako ardatz nagusiak. Energiaren kontsumo eraginkor batekin, gure Natura hobeto zaintzeko aholku eta konpromezuak, modulu interaktibo eta audiobisualen bitartez.

PLANETARIUM

Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.

12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)

Donostiatik zerura begira: Zuzeneko saioa.

Itsua izar begiekin: Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

Biziaren jatorria: Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

Infinity Express: Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia Kartoiako suziaren sekretua: Haurrei zuzendutako saioa.

Eboluzioa: Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

JAIOTZA-ERAKUSKETA

Abenduaren 12tik urtarrilaren 5era. Museko sarrerarekin ikusga.

SIMULAGAILUEN BERRIREKITZEA

Abenduaren 19tik aurrera, Errusiar Mendia eta Tranbia gidatzailea berriz ere frogatzeko aukera.

GABONETAKO JARDUERAK

"Altxorren bila" jolasa, "Zientziarekin entrena zaitez" ikuskizun berria eta "Egin ezazu zeure egutegia" eskulana.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
Ordutegia
Astelehenerik itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

GOITB > 'BERRIAK'

GOITBko informatiboak hurrengo astean

Datorren astean, asteleheneetik eguaztenera, 'Berriak' saioa eskainiko da

GOIENKARIA > ARRASATE

Datorren astean, Goiena Telebistako kazetariak lanean jarraituko dute, ikus-entzuleei Gabonetan gure ibarrean gertatutakoen berri emanaz. Hain zuzen ere, *Berriak* saioa eskainiko du GOITBk astelehenean, martitzenean eta eguaztenean, ohiko ordutegian.

Eguerdian zein iluntzean, 14:45ean eta 18:45ean

emitituko da *Berriak* informatiboa, esan bezala, hilaren 28tik abenduaren 30era.

EKITALDI UGARI

Aipatutako egun horietarako ekitaldi ugari iragarri dituzte Debagoieneko herri guztietan. Kirol jarduerak, gaztetxoentzako ekitaldiek eta bestelako ikuskizunak protagonismo berezia izaten dute Gabonetan. Horren guztiaren berri jasoko duzue GOITBren eskutik. Era berean, gaurkotasuneko gaiak jorratuko dituzte Goiena Telebistako informatiboetan. Herritarren iritziak ere jasoko dituzte han eta hemen.



GOIENKARIA

'Olentzero, Gabonetako ipuina' eta 'Olentzero eta subilaren lapurreta'

Gaztetxoei zuzendutako bi film eskainiko ditu GOITBk Gabonetan. *Olentzero, Gabonetako ipuina* 2002an eginiko marrazki bizidunetako euskal filma da. Baleuko produktorak eta Juanjo Elordik egin zuten; hiru urte geroago, *Olentzero eta subilaren lapurreta* estreinatu zuten. Lehenbizikoa Goya Sarietarako izendatu zuten, 2003an.

GOITB, 'Zinea' > Eguena, 15:30 > Egubakoitza, 11:30

Santamasetako bertso saioa martitzenean GOITBn

Maialen Lujanbio txapel-dun berriak, Andoni Egañak, Jon Maiak, Igor Elortzak eta Erika Lagomak bertso saioa eskaini zuten domekan, Amaia antzokian. AEDk antolatutako bertso saioa Goiena Telebistan ikusi ahal izango duzue, martitzenean.



GOIENKARIA

GOITB, 'Puntuz puntu' > Martitzena, 22:15

Eskolaniek Arantzazun emandako kontzertua egunean

Euskal Herriko eta Espainiako hiru eskolania onetakoei emanaldia egin zuten Arantzazun, azaroan. *Kulturen arteko topaketa* izenburupean, Montserrat, El Escorial eta Easo eskolanietako 110 mutikok hartu zuten parte.



GOIENKARIA

GOITB, 'Eskolaniak' > Eguena, 23:15 > Egubakoitza, 14:00

'Fernando Amezketarra' eta 'Txirrita' marrazki bizidunak

Fernando Amezketarra eta *Txirrita* marrazki bizidunak ikusteko aukera egongo da Gabonetan Goiena Telebistan. *Fernando Amezketarra* 13 ataleko telesaila da eta atal bakoitzak 15 minutuko iraupena dauka. Euskal Telebistak eta Euskal Mediak koprodukzioan egingakoa da. Proiektuaren atzean Juan Bautista Berasategi dago; hain zuzen, animazioko euskal zinemagintzan aitzindaria da Berasategi. *Barriola, San Adriango azeria* da haren azken lanetako bat.

GOITB, 'Marrazki bizidunak' > Egunero, 13:15, 17:10, 19:15

astea GOITBn

Eguaztena, 23	Eguena, 24	Egubakoitza, 25	Zapatua, 26	Domeka, 27	Astelehena, 28	Martitzena, 30
13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Kantari. 14:15 Perretxikoak. 14:45 Itsasoari begira. 15:10 Ilunpean. 15:50 On Ein. 16:20 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:35 DKS Sariak. 18:15 Ur eta Lur. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Ikusmira. 20:45 Kantari. 21:15 Berriak. 21:45 Kalekanto. 22:15 Erreportajea. 23:00 Mugaz kanpo. 23:45 Ilunpean. 00:45 Emisio amaiera.	08:00 Marrazki bizidunak. 10:30 Barrebusa. 11:30 On Ein. 12:00 Perretxikoak. 12:30 Mugaz kanpo. 13:00 Eltze beroa. 14:30 Barrebusa. 15:30 Olentzero filma. 16:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Erreportajea. 19:00 28. kanala. 19:30 DKS Sariak. 20:30 28 Klip. 21:00 Olentzero filma. 22:15 Gipuzkoa Kultura. 23:15 Eskolaniak. 01:15 Ahotsenea. 02:00 Emisio amaiera.	08:00 Barrebusa. 09:00 Marrazki bizidunak. 11:30 Olentzero filma. 12:30 Kantari. 14:00 Eskolaniak. 16:00 Marrazki bizidunak. 18:00 Gipuzkoa Kultura. 19:00 Barrebusa. 19:45 Ikusmira. 20:15 Ur eta Lur. 21:00 Ilunpean. 21:45 Ahotsenea. 22:45 Gipuzkoa Kultura. 23:45 Ahotsenea. 00:00 28 Klip. 00:30 Emisio amaiera.	13:15 Marrazki bizidunak: Katagorriak. 13:45 Udazken loreak. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Mugaz kanpo. 16:15 Zaharrak berri. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Erreportajea. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Danbako: Ymotek. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Berbaire. 22:45 Erreportajea. 23:15 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.	13:15 Marrazki bizidunak: Muka Muka. 13:45 Ur eta Lur. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 16:15 Ikusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Ilunpean. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Gure saltsan. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Solaskide. 22:15 Danbako. 23:15 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.	08:00 Marrazki bizidunak. 10:30 Triki traka trikiton. 11:30 Golb tb. 12:00 Udazken loreak. 12:30 Ikusmira. 13:00 Eltze beroa. 14:30 Gure saltsan. 14:30 Solaskide. 15:00 Erreportajea. 15:45 Triki traka trikiton. 18:15 Marrazki bizidunak. 19:00 Erreportajea. 19:30 Berbaire. 20:30 Golb tb. 21:00 Ikusten. 21:30 Ilunpean. 22:15 Solaskide. 23:30 Danbako. 00:30 28 Klip. 01:00 Emisio amaiera.	08:00 Triki traka trikiton. 09:00 Marrazki bizidunak. 11:30 28 klip. 12:00 Itsasora begira. 12:30 Mugaz kanpo. 13:00 Erreportajea. 13:45 Solaskide. 14:15 Eltze beroa. 15:15 Gure saltsan. 15:45 Marrazki bizidunak. 18:15 Triki traka trikiton. 19:15 Erreportajea. 19:45 Udazken loreak. 20:15 Danbako. 21:15 Solaskide. 22:45 Golb tb. 23:15 Ilunpean. 00:00 Itsasora begira. 00:30 Emisio amaiera.

eskak

ESKELA

Isabel Tena Sanchez

2009ko abenduaren 4an hil zen.

Haren aldeko meza urtarrilaren 5an (domeka), 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian ospatuko da.

Ama, amandre, zure maitasuna eta irribarrea gurekin gelditu dira.



Elizkizunera joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Angela Eguren Irazabalbeitia

Antonio Raizabalen alarguna

Bergaran hil zen 2009ko abenduaren 15ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerririk asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko abenduaren 25an.

Egutegiko Huheziko ikasleak

MODA Huheziko Irakasle Balioanitzak karrerako ikasleek biluzik ateratako argazkiekin egin dute egutegia

KIROLA Heziketa Fisikoko ikasketak egiten dihardutenek, argazkiak gimnasio batean atera dituzte


GUSTURA Zuri-beltzeko argazki txukunekin osatu dute egutegia eta emaitzarekin pozik daude

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Iritsi da egutegi berria eskuratzeko sasoi. Askotariko egutegiak izaten dira, baina bat berezia kaleratu dute Huheziko Irakasle Eskolakoek, Irakasle Balioanitzak espezialitate egiten dihardutenek. "Orain dela hirulau urte suhiltzaileen egutegia sonatua izan zen eta bromatandeko esan genuen guk ere horrelako bat egin behar genuela, eta elkar animatuta egin dugu. Iaz Donostiako Arkitekturako ikasleek atera zuten oso egutegi polita eta erreferentzia moduan erabili dugu", esan digu Asier Alvarez de Eulate ikasleak.

Arrasateko Julen Elortza izan dute argazkilari, eta, Asier Alvarez de Eulatek hauxe dio: "Ikasketak kirolaren inguruan egiten ari garenez, egutegia ere hala izatea nahi genuen. Asmoa zen herri kirolak gai hartuta Deban egitea, baina eguraldia ez genuen lagun izan eta planak aldatu egin genituen. Durango Jolasleku gimnasioan atera genituen argazkiak".



IKASLEAK Huheziko ikasleak egutegiak harro erakutsiz.



GOIENKARIA Egutegiko irudi batzuk. JULEN ELORTZA

LOTSAK ALBORA UTZITA
Hasieran nahiko lotsatuta egon zirela esan digu: "Baina bigarren argazkirako -aerobik saioan agertzen direna- gelako batek bromaren bat egin zuen eta, denok barrez hasi ginenez, handik aurrera lasai egon ginen".

Argazkiak onak dira eta zuri-beltzean xarma dutela esan digu: "Eskoriatzako hainbat dendak laguntza eman digu inprenta gastuetarako eta erakutsi diegunean gustura geratu dira; irakasleek ere argazki onak direla diote... Arrakasta handia izan du egutegiak".

500 egutegi atera dituzte eta herena saldu dute, baina erosi nahi dutenek oraindik badute aukera: Eskoriatzan Cipris eta Inkernu tabernetan eta Gozo Txiki gozotegian; eta Azpeitian Pikua tabernan, 10 euroren truke. Bestalde, ikasle bakoitzak 15-20 egutegi salduko ditu.

Biluztearena gehiago saltzeko egin dute eta dirua ikas bidaiarako izango da. Bidaiaren data ondo markatuta izango dute dagoeneko egutegian.

ahobero

"Belen Estebanek unibertsitatean ikasi izan balu, ministro izatera iritsiko zen"

Ramon Vila-Rovira
> Zirujau plastikoa

Badirudi itxura ez ezik barruko ere aldatu diola telebistan ministroak baino sarriago agertzen den emakume horri. Unibertsitatean ikasiz gero edozein izan daiteke ministro? Bizitzaren unibertsitatean ikasi duela aldarrikatzen du Estebanek, hori ez ote da nahikoa?

iturri onetik

Bergarako Musika Eskolan euskarazko musikal bat gertatzen dihardute

Musika Eskolako ikasle izan ziren Oihan Vegak eta Joxemi Etxebarriak musikal bat gertatu dute eta ikuskizun horretan parte hartzeko proposamena egin diete Musika Eskolakoek, eta haiek onartu egin dute. Orain arte, Inglaterra eta AEBetako musikalak (*Miserableak*, *Oliver* eta *Seussen mundua*) moldatu izan dituzte eta oraingoa bergarrek sortua izango da, euskaraz.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Gabonetako mezua

Bero dabil giroa errege espainiarraren biharko mezua ETBk emango duelako. Erreakzio gehienak antzerkia iruditu zaizkit, eta sano bakarra gau horretan -bereziki gau horretan- telebistari bizkarra emango diotenena. Baina bada jorratu nahi dudana argudio bat: mezua hori ETBn ematea *normaltasun* adierazpen bat da.

Ez, Surio jauna. Ematea bezain normala litzateke ez ematea, herri benetan normala bagina. Kontua beste bat da. Hemen batzuek nahi dute Espainiatik ahalik eta gehien bereizi, eta besteek Espainiarekin ahalik eta gehien berdindu. Orain bigarrenak daude agintean eta horregatik emango da mezua. Lehen besteak zeuden eta ez zuten ematen. Lehia logikoa arau zintzoekin egingo balitz, baina...

Eta zuek, ondo pasa jaixak!

ai, ene!



Elurretarako prakak ipurdiko babesarekin

Nork ez du izan azken egunotan elur gainean irristatzeko tentaziorik? Horra prakak bereziak plastikozko beharrik gabe jolasteko.

www.nopuedocreer.com

Gabonetan oparitu zeure buruari **soinuz** betetako etorkizuna

GAES
Entzumen Zentroak

%25era arteko deskontua
entzumen-laguntzetan eta prezio interesgarriak entzumen osagarrietan.



Etortzen zarenean
Gabonetako opari
polit bat jasoko duzu.

Eskaintza hau indarrean egongo da 09/12/31ra arte.

%20
deskontua

%15
eko
deskontua

%25
eko
deskontua

Otalora Lizentziatua 18 • Tel. 943 71 27 93 • **ARRASATE**

Zurradero 10 • Tel. 943 76 94 55 • **BERGARA**